



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa batek egoki funtziona dezan ezinbestekoa da hainbat baliabide edukitzea. Baliabide hauek fisikoak, intelektualak, gizabanakoenak edo finantzakoak izan daitezke. Revolution enpresa aurrera eramateko, baliabide guztiak erabiliko ditugu.

Baliabide fisikoak gure enpresa aurrera eramateko beharko ditugun baliabide materialak dira; adibidez, lekuak, gauzak ezinbestekoak izango dira gure enpresan, izan ere, hauek gabe ezinezkoa izango litzateke bidai bat antolatzea. Horretarako, erabiliko ditugun baliabide garrantzitsuenak garraioa, ostatua eta lantegia izango dira. Hasteko, Barceló hotel groupekin egindako akordioaren ondorioz ostatua edukiko dugu gure bezeroentzat Mallorkan eta Ibizan. Bestalde, Vuelling konpainiarekin adostu degunez, transportea beraien esku geratuko da. Eta azkenik, lantegi fisikoa bilatzen ari gara, lokal bat alokatuko dugu gure ofizina bihurtuko dena bezeroen zalantzak aurrez aurre argitzeko, horretarako finantza baliabideak erabili beharko ditugu.




Baliabide intelektualak gure izaera eta jokabidearekin zuzenean lotuta daude eta hortaz baliatuaz gauza desberdinak egin ditzazkegu. Baliabide intelektualak marka, jabego ezagutzari, patenteei, egile eskubideari, elkarteei eta datu baseei lotuta daude. Hauek aztertzen hasita, markak enpresa bati autoritatea eta prestigioa ematen dio, gure kasuan enpresa sortu berri denez,

Gure enpresa orain sortu berri den enpresa bat denez, jakitun gara bezeroak erakartzeko ahalmen handia egin beharko dugula autoritatea lortzeko. Jabego ezagutzari dagokionez, hainbat ekintza egingo ditugu gure enpresa ezagutzera eramateko, horrela autoritatea lortuko genuke, eta horrela errazagoa izango litzaziguke enpresa moduan haztea.



Giza baliabideei dagokionez, gure organigrama hau izango da:



Finantza baliabideei dagokienez, gure enpresa sortu ahal izateko, bankuari mailegu bat eskatuko diogu. Mailegu hau baliatuz, alde batetik gure lokala alokatu ahal izango dugu. Horrez gain, gure enpresako finantza baliabideak diru sarrerak izango dira; zehazki, berezoengandik lortuko ditugu beharrezko diru sarrerak. Gure enpresa hasi berria denez,



ekonomikoki ez ditugu erraztasun handirik, horren aurrean ideia hona iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen beka horietara aurkeztera, hauek lortu ezkerro ekonomikoki laguntza handikoa izango litzaiguke beka jasotzea.